

Fundación **BBVA**

**VIII.**  
**Musika Garaikideko**  
**Kontzertu Zikloa**  
**Bilbao**  
2017-2018

# Grupo KOAN 2

Fundación BBVA  
**San Nikolas Eraikina**  
Bilbao

2017  
**AZA**  
**07**

## BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak ezagutza berriaren sorkuntzara eta zabalkundera bideratzen ditu bere misioa eta jarduera, garai berri honek aurkezten dizkigun aukera guztiak eskura jartzeko oinarriker sendoena delako uste osoan. Ikusmolde hori bost lan-arlo nagusitan hedatzen da: Biomedikuntza eta Osasuna, Oinarriko Zientziak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, Kultura, Ekonomia eta Gizartea, eta Ingurumena.

Kultur arloan, arreta berezia eskaintzen dio musikari; izan ere, hizkuntza guztien artetik unibertsalena den horretan, sorkuntza garaikideak modu bereziki oparoan uztartzen ditu tradizioa eta berrikuntza.

Fundazioak arlo honetan egiten duen parte-hartzeak ziklo osoa babesten du: hasi konposizioen sorkuntzatik eta orkestren interpretazioraino, baita mu-

sikari berrien hezkuntza eta, obren grabazioaren bitartez, publikoaren esku dagoen ondarearen handiagotzea ere.

Horrela, BBVA Fundazioak bi modutan laguntzen dio obra berrien idazkuntzari: enkargu espezifikoaren bitartez, batetik, eta Asociación Española de Orquestas Sinfónicasekin batera urtero antolatzen duen Premio de Composición sariaren bitartez, bestetik. Azken horrek, gainera, saritutako obra kontzertu sare benetan handi batean joko dela bermatzen du. Musikari berrien prestakuntza ere babesten du, haurtzarotik hasi eta atzerriko graduondoko ikasketetaraino. Horretarako, zenbait ekimen burutzen ditu Orquesta y Coro de la Comunidad de Madridekin, Joven Orquesta Nacional de Españarekin edo Escuela de Música Reina Sofíarekin.

Beste alde batetik, musika garaikideko bi bilduma plazaratzen lagundu

du, NEOS eta Verso diskoetxeekin, eta ekoizpen espezifikoko ugari ere bultzatu ditu BBC, Deutsche Grammophon edo IBS Classicalekin, hala nola *Ecos y sombras*, Cristobal Halffterrena, *Boleros y Montunos*, Roberto Sierrarena, *Aura* eta *X*, Judith Jaurequirenak, eta *e-piano* CD-DVDa Alberto Rosadorena.

Fundazioak Madrileko eta Bilboko bere egoitzetan eta baita Auditorio Nacional de Músican urtero antolatzen dituen musika garaikideko zikloak ezin huts egiteko moduko hitzorduak bihurtu dira musika-agendan. Hitzaldi-zikloekin (*Escuchar la música de los siglos XX y XXI*, Tomas Marcoren eskutik, adibidez) eta *Scherzo* aldizkariari ematen zaion babesarekin bat egiten dute.

*Mosaico de sonidos* proiektuaren bitartez eta Plena Inclusionekin eta Asociación Española de Orquestas Sinfonicasekin batera lankidetzan estuan,

musikaren alderdirik solidarioena lantzen da; proiektu horrekin, ezgaitasunen bat duten pertsonen orkestra baten egiazko jardunean parte hartzen dute, eta talde horien egutegi ofizialaren barruan ere jotzen dute.

Musikari eskaintzen dion babes horren testuinguruan, BBVA Fundazioak maiz egiten ditu kolaborazioak Teatro Realarekin, Gran Teatro del Liceorekin, Orquesta Sinfónica de Madridekin eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartearekin (OLBE), besteak beste.

Azkenik, Premio Fundación BBVA Fronteras del Conocimiento saria Musika Garaikidearen kategorian ematen du.

Fundación **BBVA**

## Interpreteak

### Grupo KOAN 2

Marta Femenía, flauta  
Aida Aragoneses, harpa  
Jaime Fernández, perkusioa  
Carlos Jiménez, perkusioa  
Vera Garrido, perkusioa

**Marina Pardo**, ahotsa

**José Ramón Encinar**, zuzendaria

## Egitaraua

**Georges Aperghis\*** (1945)

*Les Guetteurs de sons*

**Giorgio Battistelli** (1953)

*Aphrodite*

- Nascita di Aphrodite
- La madre
- L'adolescente
- Criside
- Lo sguardo
- L'incontro
- La seduzione
- Il rito
- Il sogno

\* BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Saria Musika Garaikidean

## Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

## Georges Aperghis

### *Les Guetteurs de sons*

Georges Aperghis musikagile frantsesa, jatorriz greziarra, Atenasen jaio zen, 1945ean, artista plastikoen familia batean. Irratiak eman zion ezagutzera musikaren mundua eta hark erakarri zuen musikaren mundura. Parisen ezarri zen 1963an, eta abangoardiako musika-esparruetan murgildu zen: Pierre Schaeffer eta Pierre Henryren musika konkretuan, Pierre Boulez buru zuen Domaine Musical zelakoaren esparruan hedatzen zen musika serial eta postserialean, eta Iannis Xenakis egiten ari zen musika-ikerketetan. Aperghisen lengoaia pertsonalak lotura argia erakusten du antzerkiko zenbait elementurekin bere lehen obra aipagarrietatik hasita, hirurogeita hamarrekota hamarkada abiatu berritan, eta, pixkanaka, arte plastikoetara irekiz joan zen. Hitz, haren musikaltasun inplizitua —instrumentu-konposizioetan ere jasotzen saiatu dena—, askotan haren sormenen gidari edo motibo inspiratzaile izan da. Hain zuzen, antzerki-musikaren esparruan berritzaile sakon izatea izan zen bereziki baloratu zena BBVA Fundazioaren Premio Fundación BBVA Fronteras del Conocimiento saria eman zitzaionean, zortzigarren edizioan, Musika Garaikidea atalean.

Aperghisek bere *Les Guetteurs de sons* lana, 1981ean konposatua, «hiru

perkusion-jotzailerentzako antzerki-musika» gisa aurkeztu du. Frantzian estreinatua zen, 1981eko ekainean, Saint-Deniseko jaialdian, Théâtre Gérard Philipen. Le Cercle hirukoteak interpretatu zuen, Jean-Pierre Drouet, Gaston Sylvestre eta Willy Coquillatek osatua. 2016ko azaroan, BBVA Fundazioak, Madrilgo Auditorio Nacional de Músican kontzertu bat eskaini zuen Georges Aperghisen erretratu gisa. Programaren xehetasunak musika garaikide frantsesa, eta bereziki Aperghisena, ongi ezagutzen duen Madrilgo José Manuel López López konpositoreari —Parisen bizi dena— agindu zizkion. Konpositore horren arabera, «obraren berezitasuna keinuaren notazio erritmikoaren zehaztasunean eta isiltasunaren tratamenduan dago; haren pertzepzioa erabat aldatzen da soinu-hutsunearen eta soinu-hutsunearen gehi irudiaren artean kokatzean, pertzepzio-entitate berri bihurtzen baita. Zehaztasun globalak [...], jakina, formari eta denborari eragiten dio, pertzepzio lineal bat izatetik polifonikoa izatera igarotzen baita. Interpretatzaileen keinu fisikoen —batzuetan isiltasunean, beste batzuetan ez— eta tom-tomen eta dunbalen instrumentu-keinuen fusioa —batzuetan soinuarekin, beste batzuetan ez— gurutzatzen diren eta jarioan doazen ahots-, keinu- eta perkusion-geruzen kontrapuntu batean gertatzen da».

Aperghisek berak, interpretatzaileei partituraren hitzaurrean ematen dizkien jarraibideetan, horiek eszenatorkian nola adierazi esaten du: «Gorputza geldirik, begirada finkoa, besoak, eskuak eta hatzak bakarrik mugitzen dira; tom-tomen soinuak imitatu, artikulatu baino egingo ez diren goranzko eta beheranzko keinu mutuak. Keinuaren zabaltasuna soinuaren intentsitateari egokitu behar zaio, soinurik egon bada; burua ezkerretara edo eskuinetara mugitu, besteei begiratu, arnasa hartu, soinu glisatuak eta abar».

Horrek guztiak batzuetan sortzailekideaera hartzen duten interpretatzaileentzako eskakizun maila handiarekin bat egiten du.

## Giorgio Battistelli

### *Aphrodite*

Albano Lazialen jaio zen (Lazio, Erroma). L'Aquilako Alfredo Casella Kontserbatorioan ikasi zuen, Bizzi, Annibaldi eta Neri maisuekin. Alemanian, Stockhausenekin eta Kagelekin lan egin zuen Kolonian, eta Baden-Badenetik igaro ondoren, bere ikasketak zabaldu zituen Berlinen, 1985-86 ikasturtean. Haren ibilbidea 1990ean Egileen eta Editoreen Italiako Elkartearen Lirikaren saria eta 1993an Cervo saria jaso zuenean proiektatu zen. Haren

konposizio-jardueraz gain, Battistelli maisuak antolatze- eta programatze-zereginetan ere badihardu: Cantiere Internazionale d'Arte di Montepulciano zuzendu du, Accademia Filarmonica Romana, La Biennale di Veneziako musika-atala, Orchestra della Toscana... Italiako musikariak egindako ekarpen bikainak Santa Zezilia Akademian sartzeko merezidun egin zuen.

Antzerkiari erabat lotutako musikaria izanik, Battistellik musika eta antzerkiaren alorreko hogeitau opera eta obra inguru konposatu ditu. Haietako berriena *CO2* izeneko da; Milango Teatro alla Scalan estreinatu zen, 2015ean, Al Goreren *An Inconvenient Truth* dokumentalean oinarrituta.

*Afrodita (Antzinako ohituren monodrama)* Villa Massimon estreinatu zuen, Erroman, kultura-erakunde alemanean, 1988ko uztailaren 5ean, Pierre Louÿsen *Afrodita (Antzinako Ohiturak)* eleberrian oinarrituta —konpositoreak 1968an irakurritako liburua—. Battistelliren bigarren opera da, 1981ean Erromako Teatro Olimpicon estreinatutako *Experimentum Mundi* obra txalotuaren ondoren. *Afrodita* operaren partiturak, 1983an idatziak, aktore emakume bat (ahots bakarlarri bat) eta instrumentu-talde atipiko bat behar ditu, flauta-jotzaile batek (flauta eztea, zeharkako flauta eta flauta barrokoa jotzen dituen),

hiru perkusio-jotzailek eta harpa batek osatua. Hala aurkezten du Battistellik bere lana:

«Emakume bat bakarrik eszenatokian, bost musikaririk inguratua: *Afrodita* soinu- eta hitzen antzerki gisa aurkezten da; bertan protagonistaren, Crísideren, emakumezko ahotsak Pierre Louÿs autorearen eleberri homonimoaren testua errezipitatu du. Gortesauaren kontaketa, hasiera batean Demetrio- ren maitasun etsiarekiko epela, senti- timendu baten kontzientzia progresi- boki hartuz garatzen da, Alexandriako herriaren aurrean hiltzeko hautu tragikoaren bitartez bakarrik gauza daitekeen sentimendua. Gertaeraren giro- tze exotikoak errezipitate xuxurla- tu, abestu, hasperendu, oihukatu bat dakar berekin, ahotsa harpa batekin, flautekin eta marinbeekin batzen due- na. *Erosari* buruzko joko tinbriko bat da, musika liluratzen duen ahotsaren erritu bat, erritmoak, koloreak eta mugimenduak biltzen eta bultzatzen dituena. Emakumearen eta, ezkongai gisa haren ahotsa gorroteatzen duten instrumentuen arteko dantza».

**José Luis García del Busto**



## Marina Pardo



Goi-mailako tituluduna da Oviedoko Conservatorio Superior de Música Eduardo Martínez Tornerren eta Madrilgo Escuela Superior de Canto. 1994an Alfredo Krausek hautatu zuen ikasketak Madrilgo Escuela Superior de Música Reina Sofían biribiltzeko. Urte horretan bertan, II Festival Lírico jaialdian Lehen saria eman zioten Elena Obraztsovak eta Ana Luisa Chovak. VI Concurso Internacional de Canto Francisco Alonso lehiaketan ere, emakumezkoetan lehena izan zen, eta Santanderreko Medalla de Plata al Mérito Artístico de Juventudes Musicales domina du.

Errezitaldi ugari eman ditu haren ohiko piano-jotzailearekin, Kennedy Morettirekin. Nabarmentzekoa da *Winterreise* zikloa, Madrilgo Auditorio Nacional de Músican. 2003an *The Caterpillar, Albéniz songs* (Deutsche Grammophon) grabatu zuen, Rosa Torres Pardo piano-jotzailearekin batera.

Musika sinfonikoaren esparruan, Zedda, Valdés, García Asensio, Heltay, Encinar, Rilling, Levine, Ortega, Albiach, Brouwer, Frühbeck de Burgos, López Cobos, Ros Marbà, Herbig eta Steinbergen zuzendaritzapean abestu du. Oviedoko Teatro Campoamor an-

tzokian egin zuen debuta Prokofievren *Alexander Nevsky* obrarekin. Haren erreperitorioan nabarmentzekoak dira Mahlerren *Das Lied von der Erde*, Brahmsen *Alt-Rhapsodie*, Wagnerren *Wesendonck Lieder* edo Chaussonen *Poème de l'amour et de la mer*.

Fallaren *La vida breve* obrako Amnaren papera interpretatu du, Orquesta Nacional de Españarekin, RTVEren Orquesta Sinfónicarekin, New York Philharmonicekin, Israelgo Orkestra Filarmonikoarekin, Dresdner Philharmonierekin, Sevillako Real Orquesta Sinfónicarekin eta Danimarkako Orquesta Sinfónica Nacionalarekin egindako biretan, Pons, Halffter, Ros Marbà eta Frühbeck de Burgos maisuekin, Wiener Konzerthaus, New Yorkeko Lincoln Centerreko Avery Fischer Hall, Bukaresteko Mare a Palatuluin eta antzeko aretoetan.

Antzinako musikan lehen sartu-irteanak Eduardo López Banzoren eskutik egin zituen, Al Ayre Español taldearekin; generoan ospetsuenak diren Europako jaialdietan (Herne, Utrecht, Libramont, Schleswig-Holstein, Brusela...), Literesen *Acis y Galatea* eta *Júpiter y Semele* zarzuela barrokoak interpretatu zituen eta Hamornia

Mundirentzat grabatu; disko horrekin Premio Nacional de Música saria jaso zuten, 2005ean. Ondoren, Le Tendre Amour edo Real Compañía de Ópera de Cámara taldeekin agertu zen sarritan (eta beste bi grabazio egin zituen K617 zigiluarentzat) edo Juan Carlos de Mulder bihuela-jotzailearekin; harekin bikotea osatzen du duela hamar urte baino gehiago.

Operaren eta zarzuelaren esparruan ekoizpen askotan parte hartu du, adibidez, *Le nozze di Figaro*, *Die Walküre*, *Carmen*, *La traviata*, *Die Zauberflöte*, *Il barbiere di Siviglia*, *Lucia di Lammermoor*, *Otello*, *Tancredi*, *Rigoletto*, *L'enfant et les sortilèges*, *Manon*, *Elektra*, *The Rape of Lucretia*, *La verbena de la Paloma*, *Doña Francisquita*, *Die Frau ohne Schatten*, *The Little Sweep*, *Eugene Onegin* edo *La sonnambula*, eta antzekoetan, Sagi, Iturri, García, Poda, Bollaín, Guti, Rodríguez Aragón, Portaceli, Plaza, Pontiggia, Kemp, López, Font (Els Comediants), Palés, Lavelli, Joel, Pizzi, Ichikawa eta antzekoen zuzendaritza eszenikopean, Espainiako opera-denboraldi ia guztietan, hala nola, Genovako Carlo Felice antzokian edo Filadelfiako Operan.

Musika garaikidearekin duen interes eta konpromiso handia dela eta, hainbat lanen estreinaldietan parte hartzea eskatu izan diote, adibidez, Martín Pompeyren *La Tarasca* operan; Manuel Arteroren mezzosoprano eta aktorearentzako *El respirar de las estatuas* ganbera-operan, José Luis Gómez aktorearekin batera; García Románen *Réquiem* lanean; José Buenaguren *Pensares de Rocinante* ganbera-operan edo César Camareroren *Viento oscuro del mar* lanean (mezzosopranoarentzat, flautarako eta pianorako). Asko izan dira beretzat bereziki idatzi duten konpositoreak, adibidez, Cristóbal Halffter (Martaren rola *Lázaro* operan), Antonio Noguera (*Tres nanas* mezzosoprano eta pianorako), Juan Manuel Artero (*Sobre lo inútil perpetuo* mezzosoprano, flauta eta pianorako), Miquel Ortega (Magdalenaren rola *La casa de Bernarda Alba* operan eta *Romance sonámbulo* abestia), Miguel Franco (*Sonetos y danzas de «El Quijote»* mezzosoprano, biola eta haize-oktetorako) edo César Camarero (*Pequeño teatro de otro mundo* ahots eta pianorako).

Halaber, honako hauek ere interpreta-tu ditu: Miguel Francoren *Poemas de amor y de olvido*, Cristóbal Halffterren

*Canciones de Al-Andalus* (Versorentzat grabatuak), José María Gallardoren *Canciones de la vida* edo Luciano Berio-  
ren *Sequenza III* eta *Folk Songs*, piano-  
jotzaile eta talde bikainekin, hala nola  
Quantum Ensemblerekin, Cuarteto  
de Leipzigeekin, Grupo KOAN 2rekin,  
Grup Instrumental de Valènciarekin,  
Bartomeu Jaumerekin, Gustavo Díaz-  
Jerezekin eta Antonio Ortizekin.

Nabarmentzekoa da Osvaldo Golijoven  
*Ainadamar* operan egin zuen Federico  
García Lorcaren interpretazioa. Espai-  
nian egindako estreinaldiaren ondoren,  
Filadelfiako Operan edo Letoniako Cēsis  
Art Festivalen erreklamatu dute.

## José Ramón Encinar



José Ramón Encinar Orquesta y Coro de la Comunidad de Madrideko zuzendari titularra eta artistikoa izanda (2000-2013), Portugalgo Orquesta Sinfónica Nacionaleko zuzendari titularra (1999-2001), Segoviako XXIII Festival Internacional jailadian zuzendari elkartua (1998), Proyecto Gerharden zuzendari nagusia (1997-1999), Kanaria Handiko Orquesta Filarmónicako zuzendari titularra (1982-1984) eta Grupo KOANeko zuzendari titularra eta artistikoa (1973-1992).

Haren emanaldi berrienen artean nabarmentzekoa da Donostiako Musika Hamabostaldian zuzendutako *La bohème*, Davide Livermoreren ekoizpenean; parte-hartze bikoitza Veneziako Bienalean Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin; Florentziako Orquesta de la Óperaren aurrean egindako emanaldia 2016ko Maggio Musicale Fiorentinoan; Alfredo Aracilen *Dos delirios sobre Shakespeare* ikuskizunaren musika-zuzendaritza, Madrilgo Teatro Realek eta Teatros del Canalak koproduzituta; horiez guztiez gain, ohorezko zuzendari gisa aritu da etengabe Orquesta y Coro de la Comunidad de Madrid orkestrarekin.

Era berean, duela gutxikoa da Opus Arterentzat DVDan grabatu-

tako Rossinieren *L'italiana in Algeri*, 2013ko Pésaroko Rossini Opera Festivalen Encinarrek zuzendutako eman-kizunetan oinarrituta, eta Italiako Stradivarius zigiluaren *Homo electricus* CDa, elektronikarekin egindako Cristóbal Halffterren instrumentu-obrai dedikatua, Orquesta de la Comunidad de Madrid orkestraren buru.

Beti artearen eta kulturaren zabalpean interesatua, Encinar kasu berezia egiten ari zaie proiektu bereziei eta proposamen artistiko berriei; formatu txikiko ikuskizunak diseinatzen ari da; nagusiki musikari eskainiak dira, baina interpretazio musikala bitarteko eszenografikoak, ikus-entzunezkoak eta dramatikoak funtsezko dituzten antzerkiko osagaiekin konbinatzen da. Horren adibide dugu *El mundo de ayer* izeneko hiru saioko zikloa (*Berlín y París con Florencia al fondo*, *Du bord d'abîmes* eta *Une soirée chez la Princesse de Polignac*), BBVA Fundazioarekin elkarlanean, eta Madrilgo Teatros del Canalen emana 2015/16 denboraldian.

Norabide berekoak dira Julio Cortázarri eta hark jazzaren munduarekin zuen harremanari buruzko ikuskizuna, *Cortazaedro*; Madrilgo Juan March

Fundazioan ezagutarazi zen; Rafael Albertiri buruzko *De Cádiz a Madrid: 1917*, eta Gerardo Diegori buruzko ikuskizun poetiko-musikal bat.

Datozen hilabeteetan José Ramón Encinarrek zuzendutako lau grabazio argitaratuko dira hainbat euskarritan; horien artean, Tomás Marco eta Luciano González Sarmientoren kantataren zuzeneko estrainaldian egina, *La isla desolada*, Santanderreko 2017ko Festival Internacionalean emana (IBS zigilua), eta zuzendariak berak Francisco Escuderoren operatik egindako hautaketa, *Gernika*, Bilboko Koral Elkartearen, ahots-bakarlarien eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren buru; zuzeneko emanaldia izan zen, 2017ko apirilean, Bilboko Euskalduna Jauregian (Les Films Figures Libres).

## Grupo KOAN 2



© Dolores Iglesias/Archivo Fundación Juan March

Grupo KOANek Juventudes Musicales de Madrid elkartearen esparruan hasi zuen bere ibilbidea, Ricardo Bellés elkarteko presidentea zela. Izen bereko haize-boskotearen luzapen gisa jaio zela esan daiteke; boskotea gutxi lehenago hasia zen jardunean. Taldeko zuzendaria Arturo Tamayo izan zen, ez bi urtean baino gehiagoan, 1969tik, Grupo KOAN jendaurrean agertu zene-tik, zuzendaria Espainiatik behin betiko joan arte.

Urtebete baino gutxi lehenago, 1973ko urtarrilean hain zuzen, taldea berriz agertu zen Sonda zirkloan, Madrilgo Instituto Alemanean, Luis Izquierdo zuzen-dari zuela; hala ere, Grupo KOANena litzatekeen jarduera bateko erantzukizun inplizituen zatirik handiena, jadanik, niri zegokidan, eta hala izaten jarraitu zuen hurrengo hogeitau urteetan.

Orain, izena gaur egungo musikari be-girako interpretazioaren panoramari gehitu zaio berriz. Espainiako gizar-tean, gizar-tean, oro har, hirurogeita hamarrek hamarkadatik gaur arte izan diren aldaketak, dela KOAN 2ren ezaugarriak lituzkeen instrumentu-talde batek bizirauteko aukerak direla eta, dela publiko «espezializatuek» edo orokorrek musika garaikideari egiten

dioten harrera dela eta, izugarrikoak dira. Agian horregatik da berezia KOAN 2 berri honen jarduera; ohiko kontzertu baten aukeren baitan sar daitekeena baino zerbait gehiago hartzen du, eta musika-saio soila baino gehiago, ikus-kizun osoaren ideia bilatzen du.

Hauek dira KOAN 2k egindako ikus-kizunetako batzuk: *Berlín y París con Florencia al fondo*, multimedia-ikuski-zuna (2015); *Pensares de Rocinante*, José Buenaguren opera (2015); *Du bord d'abîmes*, multimedia-ikuski-zuna (2015); *Une soirée chez la Princesse de Polignac*, multimedia-ikuski-zuna (2016); *Cortazaedro* (2016), multimedia-ikuski-zuna; eta *Gerardo Diego*, multimedia-ikuski-zuna (estreinaldia 2018rako aurreikusita)

**José Ramón Encinar**

# Hurrengo kontzertuak

---

## **Musika Garaikideko VIII. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa**

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2017 | 11 | 28

### **B3:Brouwer Trio**

Kaija Saariaho, Tomás Marco, Ramon Lazkano eta José Javier Peña Aguayo-ren lanak

2017 | 12 | 12

### **Vertixe Sonora Ensemble**

Simon Steen-Andersen, Maria Teresa Trecozzi, Ramón Souto, Carlos de Castellarnau eta Miguel Matamoro-ren lanak

---

## **Zikloz kanpoko kontzertua**

2017 | 12 | 20

### **Lucille Chung (pianoa)**

